

Abaraxka inguruko txoriak eta ugaztunak,
landareak eta zuhaitzak, ametsak eta harri-bitxiak



Nere lehenengo
Natura-Egunkaria

Izena:



Zein da?

Txepetxa

Chochín

Troglodytes troglodytes

Neurria: 9 - 10,5 z.m

Hegoak zabaldua: 13 - 17 z.m

Noiz dago Euskal Herrian: urte osoan

Non bizi da: sasitza, sastraka, basoa, lorategia...

Ba al zenekien?

- Txepetxak 10 gramo pixatzen ditu bakarrik.
- Europako bigarren txoririk txikiena da.
- Proportzioan, kantua ikaragarri potentea da.
- Ar batek bizpahiru bikote eta habi izan ditzake.



Zein da?

Txantxangorria

Petirrojo

Erithacus rubecula

Neurria: 14 - 16,5 z.m

Hegoak zabaldua: 20 - 22 z.m

Noiz dago Euskal Herrian: urte osoan

Non bizi da: basoan, parkean, lorategian...

Ba al zenekien?

- Txantxangorriak lorazainen lagunak dira.
- Thor jainkoaren txoria da (mitologia nordikoan).
- Txingurriak eta armiarmak gustatzen zaizkio.
- Neguan lumak harrotzen dituzte, bero mantentzeko.



Zein da?

Buztanikara zuria

Lavandera blanca

Motacilla alba

Neurria: 16 - 19 zm

Hegoak zabaldua: 28 zm

Noiz dago Euskal Herrian: urte osoan

Non bizi da: nekazal guneeetatik hirietara, leku askotan.

Ba al zenekien?

- Oinez ibili daiteke (txori gehienak saltoka ibiltzen dira).
- Toki batzutan Elurretako Txoritxo deitzen diote.
- Zerbezagile eta zaleen patroia da Alemanian :-)

Zein da?

Zozoak

Mirlo

Turdus Merula

Neurria: 24 - 25 zm

Hegoak zabaldua: 34 - 39 zm

Noiz dago Euskal Herrian: urte osoan

Non bizi da: ia edonon

Ba al zenekien?

- Zozoak soinuak imitatu ditzake.
- Gainera, melodiak memorizatu ditzake.
- Arrak moko horia du, emeak marroia.
- Fruta-arbolak badituzu, kontuz :-)





Zein da?

Miru gorria

Milano real
Milvus milvus



Neurria: 58 - 70 z/m

Hegoak zabaldua: 150 - 180 z/m

Noiz dago Euskal Herrian: urte osoan

Non bizi da: nahiko erraz ikus daiteke gure inguruan.

Ba al zenekien?

- Hegan nahiko erraza da identifikatzeko, bere hegala luzeengatik eta batez ere buztanaren formagatik.
- Leku batzuetan jaten ematen diete, turistek ikus ditzaten, eta hor 20 edo 40 inguru elkartu daitezke.
- Ia denetik jaten du, hildako animaliak batez ere.
- Zenbat urte bizi daiteke miru gorri bat? 25 urte eta 8 hilabete egin zituen miru gorri batek Alemanian (baina, normalean, 10 urte inguru bizitzen dira).
- Pisua? Kilo bat edo kilo pasatxo.
- Ingelesez Red Kite deitzen diote, "kometa gorria" alegia. Zergatik dela uste duzu? ...

Ea bat ikusten dugun, ederra da eta!!



Zein da?

.....

Gorputzaren neurria: 45 - 90 cm

Buztanaren luzeera: 30 - 55 cm

Eta pisua: 3 - 14 kilo

Ba al zenekien?

- Ia edo zer jaten du: untxiak, arratoiak, saguak, arrautzak, frutak, intsektuak, narrastiak, oiloak..
- Zaunka zorrotz bat egiten du, otsaila-martxo inguruan batez ere.
- 48 kilometro orduko abiadura har dezake.
- Egunean kilo bat janari behar izaten du bataz beste.
- Naturan bost urte ingurukoa da bere biziraupena.
- Normalean gauez bakarrik ateratzen da.



Zein da? Muskerra

Ba al zenekien?

- Saurioen familiakoa da.
- Munduko narrastien ia erdiak muskerrak dira.
- Buztana galduz gero, berriro hazten zaie.
- Berde eta orlegi hitzen aurretik, "musker" esaten zen.

Zein da?

Kukurutxa edo



Ba al zenekien?

- Krustazeeoen familiakoa da.
- 14 hanka dituzte.
- Forma borobil ia perfektua har dezake erasotua sentitzen bada.

Zer da?

Kuartzoa

Ba al zenekien?

- Planetako 2. mineralik ugariena da.
- Oso gogorra da.
- kolore asko izan ditzake: gardena, txuria, arrosa, gorriska, beltza...



Zein da?

Erlea

Ba al zenekien?

- Liztorren eboluzio bat da.
- 2 begi konposatu eta 3 simple ditu.
- Erlauntzan hiru erle mota bizi dira.
- Polinizatzailearik garrantzitsuena da.



Nor da?

.....

.....

Zer altura har dezake: 40 cm

Zenbat bizi da: urtekoa edo bi urtekoa

"Ona" al da?: Oraindik ere, batzuentzat belar "txarra" da, "alferrikakoa", baina, izatez, sendabelarra da. Baina, sendabelar guztiekin gertatzen den bezala, neurriak eta prestatzeko erak ondo ezagutu behar dira.

Loreek zer kolore dute?

Haziak nola zabaltzen dira?


Hostoak jaten al dira?

Sustraiak zertarako erabil daitezke?

Nor da?

Zain-belarra

Siete Venas



Nor da?

Zain-gorria

Hierba de San Roberto



Zer altura har dezake: 30 - 50 cm

Zenbat bizi da: urtekoa edo bi urtekoa

Ba al zenekien?

- Sendabelarra da.
- Enplasto bezala, begi-ur bezala, jarabea... era askotan presta eta erabil daiteke.
- Infekzioak, erredurak, kolpeak eta zauritxoak, katarroak, anginak edota konjuntibitisa tratatzeko propietateak ditu.
- Bide ertzetan, belardietan eta landu gabeko soroetan hazten da.


Zer altura har dezake: 10 - 60 cm

Zenbat bizi da: urtekoa edo bi urtekoa

"Ona" al da?: Oraindik ere, batzuentzat belar "txarra" da, "alferrikakoa", baina hau ere sendabelarra da. Beti bezala, neurriak eta prestatzeko erak ondo ezagutu behar dira, mesede egin beharrean kalte egin ez dezan.

Loreek zer kolore dute?

Zurtoinek zer kolore dute?



Nor da?

.....

.....

Zer altura har dezake:

20 metro inguru


Zenbat urtez bizi da:

1.000-2.000 urte inguru, baina 5.000 urtez ere bizi daiteke. Hosto iraunkorak ditu. Enborra ikusgarria egiten da, lodia eta bihurria.



Ba al zenekien?

- Hagina zuhaitz misterioitsua da, sakratua. Ez dira asko geratzen gure artean, eta babestuta dago.
- Zuhaitz arrak eta emeak daude, eta azken hauek ematen dituzte fruituak.
- Fruituen parte gorria kenduta, pozointsua da (eta, eraberean, medizinala, oso ondo ezagutzen gero). Kontuz, beraz! Hostoak eta, batez ere haziak, dira toxikoenak.
- Harry Potter-en liburuetan sarritan agertzen da.
- Denborarekin, enborrak hutsik gelditzen dira barrutik.
- Robin Hooden arkua haginarekin zegoen eginda :-)



Nor da?

.....

....

Zer altura har dezake:
20 metro inguru.

Zenbat hazi daiteke urte
batean: gaztea denean,
metro bat hazi daiteke
urte batean.

Zenbat urtez bizi da:
100 bat urtez.



Ba al zenekien?

- Hostoak galtzen ditu neguan.
- Naturan, basoari hasiera ematen dion zuhaitza da, gero gehiago bizi diren zuhaitzak gailentzen zaizkio: pagoak, haritzak, pinuak, gaztainondoak...
- Lurra berreskuratzeko eta aberasteko oso ona da.
- Urteak pasa ahala, bere azala zuritu egiten da.
- Udazkenean hostoak horitu egiten dira.
- Neguaren amaiera aldera loratzen da.
- Duela mende asko, idazteko erabiltzen zen bere azala.

Nork jan du pinaburu hau?

- ☐ Saguak
- ☐ Katagorriak
- ☐ Basurdeak



Norena da lehenengo orrialdeko luma?

Kolore urdina oso arraroa da naturan. Baina badira adibide zoragarri batzuk; adibidez, azalean (lehenengo orrialdean) erakusten dizuguna. Badakizu gurean zein txorik duen luma eder eta urdin hori?